

HARITZ LARRAGETA

ANNA KOPEK

eta ezpata bikiñgoa

ILUSTRAZIOAK

Marko | Maëla



MARKO
MAËLA

ANNA KOPEK

eta ezpata bikiñgoa

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko azaroan

Diseinua eta maketazioa: A. Beltza | Erein argitaletxea
Azaleko eta barruko ilustrazioak: Marko | Maëla

© Marko | Maëla, ilustrazioena
© Haritz Larrageta, testuarena
© EREIN. Donostia 2025, edizioarena

ISBN: 978-84-1093-069-8
L. G.: D 991-2025

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
e-posta: erein@erein.eus
www.erein.eus    

Inprimatzailera: Gertu
Zubillaga industrialdea 9
20560 Oiñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
e-posta: gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera
ekologikoa da eta modu jasangarrian
kudeatutako basoetatik dator.

HARITZ LARRAGETA

ANNA KOPEK

eta ezpata bikíngo

ILUSTRAZIOAK

Marko | Maëla

erein

I

Sorakoitz – Iruñea



— B otila bat ur hartuko dut biderako —erabaki zuen amak—; bero handia egiten du.

2021eko uztaila zen. Mundua gelditu zuen pandemiaren ondoren, hasia zen, pixkanaka, normaltasuna bueltatzen. Atzeratu behar izan zituzten 2020ko Tokioko Olinpiar Jokoak 2021eko uztailaren 23an hastekoak ziren. Eta hara joan beharko zuen amak.

—Ez nazazu horrela begira, Jokin.

—Baina nik Japoniara joan nahi dut...

—Komun japoniarrekin maitemindu zen —bota zuen Uxuek, erdi barrez.

—Ixo! —protesta egin zuen anaiak—. Gauza interesgarriagoak daude Japonian.

—Ekarriko dizut komiki horietako figura bereziren bat, Jokin. Hitzematen dizut —esan zuen amak,

logelarako bidea hartuta—. Eta baita hango goxoki batzuk ere!

—Ez da gauza bera —erantzun zion Jokinek, ama, karpeta bat eskuan, bueltan ikusi zuenean.

—Badakit, maitea. Beste batean izan beharko du.

Aste batzuk lehenago, birusa berriz hedatuko ote zen beldurrez, Japoniako gobernuak jakinarazi zuen publikorik gabe egingo zirela Olinpiar Jokoak. Uxue eta Jokin ez ziren amarekin joango, aspaldiko partez.

—Eta zer egingo dugu Iruñean hainbeste egunez? —jarraitu zuen Jokinek.

—Lehenengo gauza —sartu zen Uxue—: liburutegira joan. Izeba Leireren etxetik oso gertu dago. Plazera da, behingoagatik, liburutegi on bat etxetik gertu izatea.

—Ez ezazue izeba erotu, ados? —moztu zituen amak.

—Adoooooooo —erantzun zioten anai-arrebek, aldi berean.

—Pasaportea, txartelak, diru-zorroa... Joan behar dugu, maiteak. Hartu maletak eta autora eraman.

Gogoz kontra, maleta hartu eta autorantz abiatu zen Jokin. Irribarretxo bat eskapatu zitzaion Uxueri anaiaren sufrikarioa ikusita. Ama alabaren irribarrearen eta semearen tristuraren artean zebilen. Baina lan egin behar zuen, eta ezin zituen eraman: ez zen beste

aukerarik. Autoa martxan jarri eta Iruñerantz abiatu ziren. Goibel agurtu zituen Jokinek autotik ikusi zituen lagunak.

Iruñera heltzeko 36 minutu behar izan zituzten. Kale Berria hasten den puntuan utzi zituen amak Jokin eta Uxue. Han zuten zain, espero bezala, izeba Leire. Ilobak agurtu ostean, ahizparengana joan zen eta elkar besarkatu zuten gogor. Jokinek eta Uxuek ezin izan zuten entzun zer esaten zioten elkarri. Apur bat triste ikusi zuten ama, eta agur esatean malko bat edo beste eskapatu zitzaion.

—Ongi portatu, ados? —esan zien autoan berriro sartzeaz.

Eguerdiko hamabiak ziren eta bero handia egiten zuen Iruñean. 200.000 biztanleko hiriaren bihotzean bizi zen izeba, Alde Zaharrean, eta haren etxerantz abiatu ziren. Pisu txikia zen, Zapateria kalean. Igo-gailurik ez eta lau solairu igotzeko.

—Hirugarren solairuan kanpatu nahi duzu, Jokin? —bota zion arrebak, arnasestuka ikusi zuenean—. Bihar goizean, laugarren solairuraino igotzen saiatu ahal zara.

—Grazia handia duzula uste duzu, ezta? —erantzun zion anaiak.

—Bero ikaragarria egiten du —esan zien izebak—; bi botila hortxata erosi eta izozkailuan freskatzen jarri ditut.

Maletak sofa ondoan utzi eta sukaldera joan ziren hirurak. Izugarri gustatzen zaie hortxata hirurei. Amari ez, eta horregatik ez zuten etxean inoiz izaten. Baina Iruñera bisitan joaten zirenean, hortxata erosi eta Sarasate pasealekuan edan ohi zuten, banku batean eserita, itzalpean. Izeba begira gelditu zitzaien une batez.

—Nola joan diren urteak! Atzo izan zela iruditzen zait, hortxata bat hartzera gonbidatu zintuztedan aurreneko aldia. Sei urte izango zituen Uxuek eta, ondorioz, Jokinek...

—Bi —erantzun zuen Uxuek.

—Bai. Gogoratzen dut biontzat bakarra erosi nuela. Jokini gutxi jarri nion, baina izugarri gustatu zitzaion eta pixka bat gehiago eman behar izan genion zuretik. Kontua da, orain ikusten zaituztedala eta, ezin sinetsi dudala dagoeneko hamasei eta hamabi urte dituzuela. Zu, Uxue, batxilergoan hasiko zara datorren urtean...

—Eta ni institutuan —jarraitu zuen Jokinek.

—Begi-kliska batean joan zaizkit hamar urte —erabaki zuen izebak—; zahartzen hasia naiz. Baina asko falta zait oraindik erretretarako: lauretan sartu behar dut tabernan lanean. Hamarretan aterako naiz eta, hel-tzen naizenean, pizza pare bat eskatuko dugu. Zer iruditzen?

—Eta zer egingo dugu arratsalde osoan zehar?
—galdetu zuen Jokinek.

—Liburutegira joan gaitezke... —hasi da Uxue.

—Ez... Udan, arratsaldez, itxita dago —moztu du izebak.

—Bai zera! —kexatu da Uxue.

—Baina baditut nik ere liburu asko, nahi baduzue. Eta bueltatxo bat eman dezakezue, bestela. Edozein gauza behar baduzue, deitu edo tabernara etorri, badakizue non dagoen. Konpainia egin diezadakezue, bide batez: ez dut uste lan asko izango dugunik. —Gaia aldatu zuen bat-batean—: Futbolean jarraituko duzu datorren ikasturtean, Uxue?

—Bai: pandemiaren ondoren gustura hartu dut berriz. Eta xakean ere jarraitu nahi dut.

—Eta zuk, Jokin, egiten duzu beste zerbait?

—Buenooooo... —hasi zen Jokin galderari ihes egin nahian.

—Ezertxo ere ez —bota zuen arrebak, erdi barrez—. Frontoira ez da apenas joaten, eta bideojokoekin ordu gehiegitxo pasatzen ditu...

—Baina komiki bat egiten ari naiz —erantzun zion Jokinek, haserre antzean.

—Hori aitortu behar zaio. Herriko komiki-lehiaketan bigarren geratu zenetik serio hartu du kontua. Eta komiki pila bat irakurtzen ditu.

—Beti irakurri izan ditu —erantsi zuen izebak.

—Baina, orain, askoz gehiago. Friki hutsa dugu Jokin.

—Zozoak beleari ipurbeltz! —bota zion anaiak.

—*Touchée* ! —aitortu zuen Uxuek.

—Zer bazkaldu nahi duzue? —bota zuen Leirek, beste behin, gaia aldatuz—. Oso onak dira merkatuan erosi nituen tomateak. Entsalada bat prestatuko dut. Eta, ondoren —jarraitu zuen burua hozkailuan sartuta—, hanburgesa begetalak? Ogia eroatera jaitsi behar nuke.

Izeba Leire ogia eroatera jaitsi zen, eta Uxue eta Jokin beren gela izango zenera joan ziren, maletak husten hasteko. Beren gelak balkoia zuen, baina ez zen oso handia. Doi-doi kabitzen ziren zabaleran ohe bat eta lurrean jarritako koltxoi puzgarria.

—Zergatik izan behar du niretzat puzgarriak?

—Bizitza bidegabea da, Jokin —bota zion arrebak irribarretsu, ohean eserita.

Etxeak lau balkoi ditu eta sabaiko bi leiho: egongelan bat eta anai-arreben logelan bestea. Txikia baina oso argitsua da etxea.

Bazkalostean, izeba lan egitera joan zen eta baka-
rrik eman zuten Uxuek eta Jokinek arratsaldea. Bero handia kalean, nahiago izan zuten etxean geratu,

haizagailuaren aurrean irakurtzen. Tarteka, mugikorrera jotzen zuen Uxuek, lagunekin hitz egiteko. Bidaietan amak bana utzi ohi zien, badaezpada. Baina honako hau berea zen; hamasei urte egindakoan eman baitzion amak mugikor bat edukitzeko baimena. Amaren azken mezua bigarrenenez aineratu zen momentukoa zen. Bidaia luzea zuen Madrildik Tokioraino, Erroman geldialdia eginda.

Eta, bat-batean, mezu arraro bat jaso zuen Uxuek telefonoan. Paper bati egindako argazkia zen eta +384 zen igorlearen telefonoaren aurrezenbakia. Interneten bilatu eta, bere sorpresarako, Europakoa bazen ere, aurrezenbakia ez zegoen herrialde bati esleituta. Igorlea ez zen inoiz berriro konektatu.

—Zatoz hau ikustera, Jokin.

—Zer da paper hori?

—Ez dakit. Testu bat dago, baina ez dut hitz bakar bat ere ulertzen. Ez dakit zein hizkuntza den.

A U R K I B I D E A

I	Sorakoitz – Iruñea	7
II	Eskuizkribua	15
III	Teilak	21
IV	Txirrina	29
V	Paketea	33
VI	Mezuak	39
VII	Erronkari	47
VIII	Dáinsleif	55
IX	Björn Ragnarsson	63
X	Lapurrak	69
XI	Taxia	77
XII	Mamu bustia	83
XIII	Mamu lehorra	89
XIV	Ezpata	95
XV	Anna	99
XVI	Epilogo	105

